

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2013KO MARTXOAREN 1EAN EGINIKO OHIKO BILKURARI DAGOKION AKTA

Errenteriako udaletxean, 2013ko martxoaren 1eko goizeko 08:30ak zirela, lehenengo deialdian eta Julen Mendoza Perez alkate jaunaren (O.E. BILDU) esanetara, ondoko zinegotziak elkartu dira:

- Luis M^a Diez Gabilondo
- Jon Txasko Orgilles. (biak O.E. BILDU taldekoak)
- Jose Manuel Ferradas Freijo (EE)

Ez dira etorri, baina ezin-etorria adierazi dute, Miren Alazne Korta Zulaikak, Iruñe Balenciaga Arresek eta Garazi Lopez de Echezarreta Auzmendik (O.E. BILDU).

Bertan dago eta egintza fedatu du Begoña Bueno Barranco idazkariordeak.

1. Gobernu Batzarrak 2013ko otsailaren 1ean eginiko ohiko aktaren irakurketa eta onespena, bidezkoa bada.

Idazkariak 2013ko otsailaren 1ean eginiko ohiko bilkurari dagokion akta irakurri ondoren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Onartzea 2013ko otsailaren 1ean eginiko ohiko bilkurari dagokion akta.

2. AITZONDOKO larreetan nekazaritzako ustiapena (Lau Haizeta) luzatzea.

Martxoaren 20an amaitzen da "CONCEPCIÓN MACICIOR SORALUCE" andrearekin "Aitzondoko larreetako bazka abereekin jateko (Lau Haizeta)" sinaturiko kontratua. Berorrek sei (6) urteko iraupena zeukan, bi urtetik behin berrituz, eta gehienez ere hamar (10) urte arte.

Ingurumeneko teknikariak gaiari buruzko txostena egin du.

Mendi eta Ingurumeneko ordezkariak proposatu du bi urterako luzatzea, hau da 2013ko martxoaren 21etik 2015eko martxoaren 20ra arte.

Interesatuak bere adostasuna adierazi du.

Baita Kontratazio eta Ondarea Saileko arduradunak ere.

Kontratazio Mahaiak proposatuta.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

E R A B A K I D U

1.- CONCEPCION MACICIOR SORALUCE Andrearekin sinaturiko kontratua berritzea, "Aitzondo larreetako bazkak abereekin abereekin jateko (Lau Haizeta)". Horren epea bi (2) urtekoa izango da, 2013ko martxoaren 21etik 2015eko martxoaren 20ra arte, alegia. Baldintzak hasierako kontratuan ezarri zirenak izango dira.

2. Bere horretan uztea bere garaian berme gisa ezarritako fidantza.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaituzat eman du egun bereko 08:40 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.